

Miren Lourdes Oñederra Olaizola
Euskaltzaindian sartzea

Donostiako Udaletxea, 2010-III-26

Ongietorria

ELORZA GONZÁLEZ, Odon
Donostiako alkatea

Herritar, euskaltzain eta agintariok: Arratsaldeon eta ongi etorri Donostiako zuen etxera. Mila esker alkatetza eta korporazio osoaren izenean.

Idazle batekin egin nuen topo alkate ibilera horietako batean. Berak ezagutu ninduen, ez neraman txapelik.

– Usted es el alcalde de San Sebastián.

Pozik zegoen gizona. Gure hiriarekin zuen lotura bere literatura lana zen. Bere bi obra itzuli berriak zizkioten euskarara.

– Me han hecho inmortal alcalde –esaten zidan. Hainbeste mendetan, hainbeste urtetan, –bere aztarnak galtzerainoko antzinakotasun mitikoetan–, iraun duen hizkuntza inoiz ez zela hilko pentsatzen zuen. Bere obrak hilezkortasuna lortua omen zuen euskaratzean.

Irriak irri, kunplituak kunplitu, zer pentsatua ematen zuen idazle haren pozak. Ez zitzaidan ohizko «*qué ciudad más bonita la suya, alcalde*» edo «*menudo lío, qué mérito tienen ustedes allí*» bi egiak esanaz inguratu.

Euskararik gabe idazle hark ez zuen Donostia hura ezagutuko. Eta pentsatzen hasi eta horixe pentsatu nuen, Donostia ez litzatekeela Donostia izango euskararik gabe. Euskarak ere hiri bakar bihurtzen gintuela. Nola irudikatu gure jaiak, gure ohiturak, gure kantak, gure lekuak, gure hitzak, gure herritarrak, donostiarrak, euskararik gabe? Hiri liberala, libertade zalea, Barojatarrak, Artolatarrak, Bilintx, Bitoriano Iraola, Soroa, Arzak, Toribio Alzaga, Manterola...

Eta alderantziz? Alderantziz egiten badugu galdera? Euskara irudika daiteke iraganean, orainean eta geroan, Donostiarik gabe? Harro erantzun dezakegu donostiarrok, ez. Ez. Donostiarik gabe eta donostiarrrik gabe puska handiak faltako litzaizkieke euskararen munduei. Idazleak, kulturgileak, hedatzaileak, elkarteak, enpresak, egoitzak, proiektuak, dena... Kaxkarin eta txolin ospea ezarri digu zenbaitek, euskararen hiritartasuna ulertu edo ikusi nahi ez duten zenbaitzuek esango nuke, baina gure herritarrak, donostiarrak beti egon dira euskararen muinetan, eginkizunik ezinbestekoenetan. Gaurkoa adibide, hogeitabederatzi eserleku ditu Euskararen Akademiak eta bost izango dira beraietan eseritzen diren donostiarrak Lourdes Oñederra andrea eseritzen denean. Edo, pasadizoz, eseriko diren emakumezkoetatik bi donostiarrak izango dira. Hiri harrokeria haizatzeko motibo aski edozein bazterretan.

Baina aprobeitza dezadan parada harrokeria horietan, iraganetan edo bandera kolpe hutsetan itota ez dugula hil behar esateko. Donostia etorkizuneko apustuak egiten ari da, eta horietako bat 2016an Europako Kultura Hiriburu izatearena da. Ez da hau, askori hala irudituko bazaio ere, propaganda politikoa. Hiri eginkizun bat da, eginkizun garrantzitsu bat. Non, balio handiagoa izan dezake bide horretan egin dezakegun lanak hiriburutza lortzeak berak baino.

Eta hor, euskarak pisu handia du eta hala eman nahi izan diogu. «*Hitzen hiria*» da proiektu horren ardatz nagusietako bat. Hitzei, hitzari, hizkerari, hizkera guztiei, eman nahi zaie garrantzia. Elkarrizketari, Baionatik Bilborainoko herritarrok batzen gaituen faktoreetako bati. Sortzaileak izatea dagokigu. Europari hizkuntza aniztasunaren balioa irakastea. Hitzen elkarbizitzan murgiltzea. Europa osoko hizkuntza txikien erreferente bilakatzea, Europa txikien elkarlaneko Europa nagusian sinestea. Eginkizun hori Donostiarri, donostiarrei eta euskarari ezarri nahi diogu. Harakoak zioen bezala ez hizkuntza zaharrenari, hizkuntza gazteenari baizik, gogotsuenari. Donostiarrak bota diogu herronka.

Herronka erakargarria da euskaltzain jaun-andreok, agintari eta herritar jaun-andreok, Lourdes Oñederra andrea, bereziki. Desafio ederra. Zibikotasunez eta herritartasunez gainezka egindako apustua da. Euskara lehen lerroan, euskara tresna nagusi, euskal hiztunok protagonista. Donostiako

herritar merezimenduen domina jaso zenuenean bezala, Lourdes adiskidea. Euskaltzain izendatu zindutelako, hain zuzen. Orduan bezalaxe. Gaur Udaletxe honetan babesten gaituzten hornei ez zaie oraindik zure hitzek eragindako dardara joan. Zure demokrazia aldarriak, herritarren libertadearen oihuak, zure elkarrizketa gogoak euskara nagusi bilakarazi zuten, hizkuntza nagusi, zeresan nagusi. Ez dira etxe honetan hitz haiek oihartzunak inoiz itzaliko.

Horixe gogoraraztea zegokidan, horixe eta donostiarren harroa, zure eserlekuagatik. Aipatu hitz haien muina bezain oparoa izan dadila zure euskaltzain lana. Merezimendu akademikoak dagokionak aipatuko ditu.

Zorionak emakume, zorionak Lourdes.

Zure da hitza Euskaltzainburu jauna.

Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua

Donostiako alkatea,
Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua eta sailburuordea,
Donostiako Udalaren bozeramaleak,
jaun-andreak,

Arratsalde on:

Aldiak aldi, aldikada berria bizi du azken urteetan Euskaltzaindiak. Ez da lehen bere historian zehar, eta ez dut uste azkena ere izango denik.

Urte-andana igaro da, azkenekoz Euskaltzaindia donostiarren etxean bildu zenetik; zehatz esateko, badira hogeita bat urte, ia mende laurden, lehendabizikoz hona hurreratu zenetik. Egia esan, urte horietan, aldaketak izan ditu Euskararen Akademiak, eta aldaketak izan dituzte, orobat, Donostiako Udalak eta gizarteak berak ere bai.

Aldaketak gorabehera, hogeita bat urte geroago, betiko adore eta kementarekin dator Euskaltzaindia, kide berriaren sarrera-hitzaldia entzuteru.

Lourdes Oñederra donostiarra da, eta Donostiara dator euskaltzain osotasuna hartzera. Hala hartuko du Euskaltzaindiak, bere herritarren artean, abegiz eta amultsuki.

Ohikoa izaten da halakoetan euskaltzain oso berriaren merituak aipatzea. Hartara, irakaskuntzan, ikerketan eta literatura-sorkuntzan nahiz

itzulpenean, haren izena sona handiko gertatzen da, euskalgintzaren nahiz euskalaritzaren alorretan.

Badu argitasunik, badu jarraitutasunik; badu, hitz gutxitan esateko, Euskaltzaindiari ekarpenak egiteko molde eta trebeziarik.

Horrela hartzen dugu gure artean. Halaxe ospatuko dugu, poztasun osoarekin, haren sarrera-hitzaldia.

Poztasun horrekin batera, hitz batzuk esan nahiko nituzke orain gaztelaniaz, ohiko izan ez arren.

* * *

Palabras que dirijo al Alcalde y a toda la corporación municipal de San Sebastián/Donostia, para agradecerles su acogida, y reivindicar el papel de Euskaltzaindia como institución incardinada en Donostia, en Gipuzkoa y en Euskal Herria, institución que quiere ofrecer, hoy, un nuevo esfuerzo para impulsar un centro de investigación y difusión del euskera en Donostia, que espero sea pronto una realidad gracias a la acogida del Ayuntamiento de Donostia y a la iniciativa de este Ayuntamiento y de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

* * *

Eskerrik asko zuoi guztioi, gaur laguntzen diguzuelako; Eusko Jaurlaritzari, Arabako, Bizkaiko nahiz Gipuzkoako foru-aldundiei, Nafarroako Gobernari, Euskararen Erakunde Publikoari, Espainiako Gobernuari, eta, halaber, hainbat udal eta herritarri, egunero ematen dizkiguzuelako aurrera egiteko arnasa eta baliabideak.

Horiek, ziur egon, gizarteari itzultzen dizkiogu, zuoi, hain zuzen ere. Lan horretan partaide eta lankide izateko, oraintxe deituko dugu, deitu ere, Lourdes Oñederra, gure artera etorri eta bere sarrera-hitzaldia egin dezan.

Mila esker

Drift

OÑEDERRA OLAIZOLA, Miren Lourdes

Alkate Jauna,
Euskaltzainburu Jauna,
Agintariok,
Euskaltzainok,
Adiskide, senide eta lagunok,
Jaun-andreok,
Arratsaldeon / Buenas Tardes / Guten Abend / Boa Tarde

Juanjo Zearretarekin hasi nintzen ni ekitaldi hau prestatzen, ziur naiz gaur bera pozik eta urduri egongo zela, ni bezala. Pozik egongo zen Henrike Knörr ere, ni euskaltzain izateko proposatu ninduten hiru kideetako bat, dudarik gabe ni gehien eta aspaldiagotik bultzatu ninduen. Biei, Henrike-ri eta Juanjori eskaintzen dizkiet nire urduritasunaren bizitasuna, nire poza eta, ziur naiz, hemen zaudeten askoren oroitzapena.

Halaber aipatu nahi ditut *ukitu* esaten zuen ama, *ikutu* esaten zuen aita. Agian beren desadostasun haietan zegoen ni hona ekarri nauenaren hazia...

Drift*

Hizkuntza airez eta memoriaz dago egina, hizketa airezkoa da, aire mugimendua, airea mugitzea, ura mugitzen den bezala: uhinetan (*olatuetan*, guk hemen Donostiako hondartzetan, Donostiako kaian, *kayian*¹, esaten genuen bezala, oraindik ere batzuek batzuetan esaten dugun bezala).

Uraren edo airearen mugimendu horri deitzen zaio ingelesez *drift*, mugimendu horri edo mugimendu horrek (airearen eta uraren bultzadak) eragindako mugimenduari.

Aingeru bat

Azkeneko aldiz Sting-en *If on a winter's night* ('Baldin neguko gau batez'²) diskoko kanta tradizional batean entzun dut hitza. Gabriel aingerua jaitsi omen zitzaion Maria dontzeilari zerutik, hegoak aireak *orraztutako* elurra bezala zekartzala, begiak su: *his wings as drifted snow, his eyes as flame*³.

* Ondorengo lerroetan sarrera ekitaldian eginiko hitzaldia ahalik eta leialkien ematen saiatu naiz. Ahozko doinu eta erritmoak kentzeak beharrezko egiten dituen puntuazio aldaketak, esaldien berrantolaketa zenbait eta lokailu laguntzaile batzuek gainera, ezer gutxi gehitu dut: informazio osagarriren bat ulermena errazteko asmoz. Alderdi teknikoek oinoharretan eman ditut. Horrela, hitzaldiaren ildoari besterik gabe jarraitu nahi dionak oinoharrei jaramon egin gabe irakur dezake testua.

¹ International Phonetic Alphabet (ikus IPA 1999) edo Nazioarteko Alfabeto Fonetikoaren arabera [kajian] eta [kajian] izan daitekeen ahoskera hori euskal fonologiaren gertakari interesgarri baten ondorio da. Ezaguna da irristariak alde batetik bokaliko bestetik kontsonantiko direla. Euskarazko adibideotan diptongo azkeneko [j] irristariak kontsonante balioa hartzen du eta ondorengo bokal baten aurrean /e/-ren eransketa gertarazten: *kai-e-an*. Beste goiko bokalaren, /u/-ren, aldaera irristariak ere berdin jokatzen du hurrengo forma hauetan: *lau-e-an*, *gau-e-an*. Ikusten da diptongoz amaitutako erroek kontsonantez amaitutakoek bezala jokatzen dutela (cf. *muturr-e-an*, *oroimen-e-an*). Hizkeraren arabera eratorpen fonologiko desberdinak izan ditzake /e/-ren eransketa horren emaitzak (adibidez, *kai-e-an* > *kayean* > *kayian*; *gau-e-an* > *gabean* > *gabian*).

² Italo Calvinorenaren eleberri hura, *Se una notte d'inverno un viaggiatore*, gogora dakarkiguna berehala. Ez dakit Stingek hori ote zeukan gogoan diskoari izena ematean. Eskerrik asko, bihotzez, Antonia Deias, Tonina, lankideari Calvinoren italiararekin emandako laguntzagatik.

³ *Orraztearena*, noski, nire itzulpen ahalegina da, testuinguru horretan *drifted* adierazteko bururatu zaidan egokiena.

Baina ez dut uste hitzaldi honen izenburua aingeruaren hegoengatik gogoratu zitzaidanik. Jakinaren gainean behintzat, hautuak Sapir du inspirazio iturri eta Mitxelena maisua bitartekari.

Koldo Mitxelenari zor diot, beste gauza askoren artean, Edward Sapir irakurri nuen bezala irakurri izana. Izan ere hari entzun bainion Edward Sapirren *Language* liburuak, nahitaezko behar lukeela Filologia ikasketetan eta nik, nahiz eta Mitxelenaren eskoletan entzule nintzenerako ikasketak (lizentzia-titulurainokoak esan nahi dut) bukatuta izan, Sapirren liburuarekin osatu nituen⁴. Oraindik ere osatzen ditut.

Koldo Mitxelenaren itzalaren babespetik, Euskal Filologiako gure ikasleei esan izan diet behin baino gehiagotan Sapirren liburu behar bezala irakurtzen duenak, gainera Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* irakurtzen badu, merezi lukeela tituluaren erdia gutxienez⁵.

Edward Sapir handiak 1921ean argitaratu zuen *Language* liburuan hizkuntzaren aldaketa historikoari dagokion VII. kapituluaren azpтитulua da *drift* hitza. Mexikoko Fondo de Cultura Económica argitaletxeak 1954 urtean argitaratutako espainolezko itzulpena egin zutenek ez zuten nonbait jakin nola itzuli eta, besterik gabe, kendu egin zuten kapituluaren azpтитulua. Alberto Gabikagojeaskoaren euskarazko itzulpenean «eraldaketa korrontea» agertzen da *drift* hitzaren ordain VII. kapitulu horren idazburuan. Zintzotasunez ez da azpтитulua kendu. Itzuli egin da nolabait, edukiaren ondorioa azaldu zaigu, hizkuntzaren azterketari zuzenean dagokion esanahiaren zatia. Ezinbestean metafora hautsi da, agian sinekdokearen bekatua eginaz. Itzulpenaren mugak azaldu zaizkigu; hizkuntza batean esaten den oro esan daiteke beste batean, noski, baina ez beti, ez guztiz, ez erabat berdin. Itzultzaileak ahalik eta ongien moldatu du euskarara hitz zail hori, *drift*, aipatu kapituluan eta hurrengoan batez ere, baina liburu osoan zehar aski maiz agertzen dena; horrela, dituen adiera eta kategoria desberdinetan pus-

⁴ 1982-1985, Mitxelenaren erretiro aurreko hiru ikasturteez ari naiz. Doktorego ikastaroetan ez nintzen entzule izan, ikasle oso baizik.

⁵ Ikus bibliografian Michelena, Luis [1977²]1985.

katuta agertzen da ingelesez aditz zein izen izan daitekeen *drift* hitzaren eremua: joera, korrontea, norabidea, xedea, eta abar⁶.

Drift (hitza terminoan urtzeaz)

Nik gaur zuekin partekatu nahi dut, litekeen ahanzturatik salbatzeko hitz hori, *drift*, nik ere, nola itzuli ez jakin arren, edo horrexegatik agian, ziurrenik horrexegatik, bere horretan itzulezina delako gure hizkuntzetan, eta polita delako formaz, indartsu edukiz (bi horiek, forma eta edukia, banatzeko baimena dugun heinean).

Hizkuntzalarien artean, ingelesez, egungo hizkuntzalaritzaren hizkuntza nagusian alegia, maiz aski erabiltzen da *drift* hitza, termino gisa, bidenabar batzuetan, han hemenka, ia nahigabe bezala, aldian behin jatorrizko esana-hiarekiko lotura galduta, urtuta⁷.

Nik gaur nahita ekarri dut hitza hona, edukiaren airezko forma hori, laburra, silaba bakarrekoa, baina kontsonantez betea, bi aurretik, bi atzetik, bokal bakarraren inguruan.

Drift (hotsak)

Bokala, mehea, itxia, aho-sabairantz zuzenduta mihia nonbait, nahiz bokalen kasuan gauza horiek zail diren zehazki neurtzen⁸.

⁶ Ikus bibliografiako Sapir 1921 erreferentziaren azkenean euskarazko itzulpenarena ere.

⁷ Esate baterako eta erreferentzia gisa, Fischer-Jørgens-ek (1975) bere Fonologiaren Historia erraldoian, hiru lekutan aipatzen du: Sapirrek hots aldaketan aldarrikatzen duen norabideaz eta, oro har, hizkuntzaren bilakaeraren haren kontzeptuaz (op. cit. 18); fonologia diakronikoaz ari dela, adierazteko Bloomfield-en bidetik Hockett-ek ahoskeraren aldagarritasunean «drift of allo-phones» delakoa aldarrikatzen duela (op. cit. 103); eta, azkenik, Generatibistek bloomfieldarren ikuspegi hori arbuiautu zutela azaltzeko (op. cit. 272).

⁸ Terminologia fonetikoan ohikoa da bokal itxiak «goiko» deitzea. Neurritz kanpoko litzateke hemen bi termino horien artean litezkeen desberdintasunez aritzea. Oro har bokalen ezaugarri artikulatorioak kontsonanteenak baino zehazgaitzagoak dira, nahiz egungo aurrezko teknikoek

[i]. Edonola ere, bokal guztien artean ahoskordetan gora datorren aireak, hitzunaren gorputzetik irteteko, egin behar duen bidea laburrena duena, ezpainak irribarrera eramaten ditugulako, atzerantz, [i] esatean eta horregatik, antza, akustikoki bigarren formante garaiena duena⁹.

[i]. Argitasunarekin lotzen dena bokal ilun eta argien sailkapen sinestesikoan eta onomatopietan, irrintziarena bezalako doinu garaiekin, gauza txikiek ateratzen duten zaratarekin, *klink*¹⁰.

[i]. Zerbaitegatik Rimbaud-ek bokal gorritzat hartu zuena «Voyelles» poeman, *pourpres, sang craché,...*¹¹.

[i]. Euskaraz ondoko kontsonanteak «busti» egiten dituenak: *hilla, miña, dittu, ixan...* Urak bezala palataltasunak busti egiten du nonbait: fonetika-ren sinestesiak. *Sons mouillés*, frantsesez. Gaztelaniaz inor gutxik esaten du hori horrela, *sonidos mojados*. Agian errazago da aurkitzen *mojamiento*. Behinik behin, ez da frantsesez bezain oparoa, eta ez du izan inondik ere

gauzak asko hobetu dituzten. Halaz ere eta berez, aho-sabairantz zuzentze hori, *palataltasuna* deitzen dugun tasuna, hobeto neurtu bide da oharrenaren alderditik bokal hori ahoskatzean sortzen diren uhinek entzumenean duten eraginarenetik, uhinen moldatze anatomikoaren aldetik baino, nahiz oinarri artikulatorio hori ere ukazina izan: «(...) a feature with obvious acoustic correlates (like palatality) may have phonological effects which parallel those of a feature with obvious articulatory correlates (like labiality or rounding) (...). This parallelism cannot be explained in a framework which assigns to one only an acoustic and to the other only (...) an articulatory correlate» (Doneganen 1978: 15).

⁹ Horrekin batera mihiaren goitasunak ere baduela zerkusia formantearen balioan akustikazko eskuliburuetan irakasten zaigu: «The longer the cavity, the lower F1 will be; the shorter it is, the the higher F1 will be. This correlates with tongue-height; the pharyngeal tube continues into the mouth and is narrowed in varying degrees by the movement up and down of the tongue» (Lodge 2009: 191).

¹⁰ Alderatu «*klonk* egin zuen erortzean» eta «*klink* egin zuen erortzean»: bigarrenak gauza txikia-go batek ateratzen duen hots garaiagoa iradokitzen du (ikus Donegan 1978: 39). Literatura tanke-ra horretako adibidez josita dago. Gorago aipatu *Se una notte d'inverno un viaggiatore* eleberriari Italo Calvinok dio: «Il gatto inarca il dorso, la cassiera chiude il registratore di cassa che fa *dlin*» (letra etzana, nirea).

¹¹ Hona hemen bokal honi dagozkion bi lerroak osorik: «I, Pourpres, sang craché, rires des lèvres belles / Dans la colère ou les ivresses pénitentes».

euskaraz izan duen arrakasta «terminologikoa». Euskaraz, erraztasunagatik edo zentzu poetikoagatik edo –hizkuntza txikia izanik¹²– agian biontagatik, *busti* gehiago esaten da *palatalizatu* baino. Halaber, unibertsitateaz landa, *hots bustiak*, *hots sabaikariak* edo are *hots palatalak* baino hedatuago dagoelakoan nago.

Drift (hizkuntza bakoitzaren aukerak)

Euskarak bere oraingo izaeran sortuko ez lukeen hots bilkura agertzen du *drift* hitzak: hasiera, nekez; bukaera, are nekezago. Edo, itxura besterik ez ote da uste hori? Pentsa dezagun fonetikak eskaintzen digun abstrakzio aukera baliatuta.

Hitz hasieraz, esan daiteke badaudela mota horretakoak euskaraz, egun eta aspaldi samarretik. Esate baterako, ezpainkariak hasita, *branka*, *bromatan*, *brusa* edo *brokel-dantz*a. Ahoan atzeragoko hersketaz abiatzen diren *gramo*, *grisa* eta *grazia*-ri ere ezin zaie ukatu beren euskaltasuna, ez badu batek mutu gelditu nahi. Beste horrenbeste horzkariz hasten den *dragoi* bezalakoek, nahiz egia den *herensuge* esan litekeela, baina auzi horrek, Euskaltzaindiaren esparrukoa bada ere, ez du zerikusirik ahoskerarekin¹³. Azkenik gogoratu behar dugu hitz barrenean euskarak berak sortu bide dituen *ondratu*, *aldrebes*, *bolondres* bezalakoak.

¹² Hitzun vs. hizkuntzalari proportzioak bereziak dira euskararen alorrean, erlatiboki asko garelako era batean edo bestean hizkuntzaren kontzientzia teorikoa dugunok hiztunen artean; horrek handitu egiten du gai linguistikoez hitz egin bai, baina terminologia teknikoa menperatzen ez dutenen kopurua.

¹³ Hitz hasieran /br/ eta /gr/ baino /dr/ gutxiago izateak badu bere esplikazio fonetikoak: [d] eta [r] hots (ia?) homorganikoen arteko distantzia fonetiko txikiagoa da [b] eta [r] edo [g] eta [r] hotsen artekoa baino. Latinak, hain zuzen ere, lehen kontsonantea ahoskabetu egin zuen [dr-] bilkuretan, erromantzetik euskarara sar zitezkeen [dr-] bilkuren aukerak urrituz horrela. Ahoskabetze horrekin kontsonante bien arteko ozentasun desberdintasuna areagotu egin zuen, lehenengoaren traba-indarra handituz eta silaba egituren baldintzetara hobeto egokituz horrela hitzak (ikus silaba ekinaren nolakotasun hobetzeaz: «The Head Law», Vennemann 1988: 13 hh.).



Hitz azkenaz ere, berriz, aitortu behar da *bost*, *koxk* bezala igurzkari-herskari bilkuraz amaitzen diren hitzek ez dutela euskararen ahoskera ezertan bortxatzen. Beste bukaera batzuk baino urriagoak dira noski, baina hori hizkuntzaren iraganarekin dago lotua, [f] hotsaren gaztetasun edo berritasun erlatiboaren auzia bezala. Batzuen urritasunak eta bestearen berritasun erlatiboek ez dituzte hiztunen muga fonetikoak islatzen.

Abstrakzioak abstrakzio, eta puskak puska, ordea, ezin da ukatu hitzaren itxura arrotza dela. Berdin dio hotsak banaka edo bilkuraka aztertzetik ateratzen dudana fonetikaren aitzakian. Egia da, hitzaldiaren izenburua txartelean irakurrita, galdetu didatenek sudurra okertuz edo doinu arraroz aipatzen zidatela hitza.

Ez. Gaurko euskaraz ez litzateke horrelako hitzik sortuko. Agian garrantzitsuena da [f], igurzkari hori, ia azkenean agertzea, beste kontsonante gogorrago baten aurrean. Igurzkari hori, ez [s] bezalako txistukari bat (s, z, x), [f] baizik. Eta, oro har, horrenbeste kontsonante bokal bakarrarekin: ez da ez, inondik ere, silaba bakarreko euskal hitz arrunta. Onomatopeiak baka-

rik datozkigu burura adibideak bilatzen hasita: *krask*, *plast*, eta abar. Beraz, ez iraupena, ez erritmoa, ez bukaera, ezta bukaera hori hasiera horrekin: ez dagozkio euskararen oraingo izaerari.

Euskararen oraingo izaera esan dut. Zertaz ari gara «euskararen oraingo izaera» esatean? Zer da *orain*, zer da *lehen* hizkuntzarentzat...

Hizkuntzen denbora, hizkuntzaren aroak luzeak dira gizakion neurri biografikoekin alderatuta, baina geure bizitzetan bezalaxe ez dago geldiunerik hizkuntzaren aro horietan ere, etengabe aldakorra baita hizkuntza denboran barrena, espazioan zehar.

Hizkuntza airea bezala, ura bezala, etengabeko mugimenduan dago, batzuetan nabaritzen ez bada ere.

Daniel Jones fonetikari britaniarrak bere *Phonetic Readings in English* testu transkribatuen antologiaren bigarren argitalpenaren hitzaurrean, 1955ean, aitortzen du transkripzio batzuk aldatu egin behar izan dituela, berak islatzen duen ingelesaren (ingeles britaniar estandar zaindu samarraren¹⁴) ahoskera aldatu egin delako lehen argitalpenetik igarotako berrogei urteetan¹⁵.

Ez du edonork Jones-en sentiberatasun fonetikoak, eta eskerrak, hiztun arruntaren egitekoa ez baita hizkuntzaren aldaketak analizatzea, erabiliz aldaketa horiek sortzea baizik. Horrela, hizkuntza erabiliak eta hizkuntza horietako hotsak aldatu egiten dira etengabe.

Drift (aire uhinen oharmena)

Begira diezaiogun orain berriro gure gaurko izenburuaren formari, *drift*. Lehenengo, hitzak duen bokal bakar horri: *ni* eta *hi* eta *bil* hitzetan bezala, [i]. Bokala entzuleari aire uhinetan iristen zaio, aire partikulen arteko presio

¹⁴ «(...) educated Southern English –or RP ('Received Pronunciation') as it is now often called» (Jones 1955: X).

¹⁵ 1912an argitaratu zen lehen aldiz liburua. Oso interesgarriak dira 1955eko argitalpenaren hitzaurrean Jonesek egiten dituen ahoskera-aldaketa eta aldaera horien aipamenak (hala nola hitz elkartuetan gertatu azentu aldaketek) eta horiei buruz ematen dituen erreferentzia osagarriak.

gorabeheretan, entzuleak [i] entzun baitezake, hiztunaren irribarre modukoa ikusten ez duenean ere, hiztunaren mihiaren sabairanzko igotzea ikusi ezin badu ere, [i] hori osatzen duten uhinak ez direlako [a] edo [o] edo beste bokalak osatzen dituztenak: eztarrian sortzen diren uhin anitzetatik batzuk bakarrik aukeratzen ditu ahots bideak (eztarriak, ahoak, ezpaineak)¹⁶. Aukera desberdin horietan datza bokalen arteko desberdintasuna¹⁷.

Mutatis mutandis, antzekoak dira gauzak *drift* hitza osatzen duten gainerrako hotsekin. Hasierako eta bukaerako kontsonanteak ere aire mugimenduetan iristen zaizkigu, hasiera hots-uhinetan, [dr]; bukaera, [ft], zarataren igurtzi bortitzagoen bidez, maiztasun edo frekuentzia erregularrik gabeko partikula mugimendu nahasietan.

Aireak darama beti entzulearen belarrira hiztunak esan duena, airea da hiztunaren hitza entzulearen belarrira iritsi bitartean. Airezkoa.

Noski, hiztunak sortutako aire mugimendu horiek... iristen dira edo ez dira iristen. Edo, entzulearen belarrira iritsi arren, aldatu egiten dira haren adimenera heldu orduko, hiztunaren ahoak eta sudurrak eta eztarriak moldatzen dutena ez baitu beti bere horretan hartzen entzulearen oharrenak.

Duela zenbait belaunaldi latina euskarazko belarriekin entzun zutenei ez zitzaie iristen guri bezala hitz hasierako [r] dardara. Aurretik beste zerbait zuela entzuten zuten, bokal bat, hala zela uste zutelako sortu ziren euskal hiztegiko *errege*, *Erroma*, *errota*¹⁸; eta ez horren aspaldikoek gaztelaniazko [θ] horzkariaren aire zurrunbiloan, [s] entzuten zuten eta hala zela uste zuten, eta hala zela uste zutelako entzuten zuten horrela (orain ere Iparral-

¹⁶ Horregatik esaten du fonetika akustikoak, hizketa-hots ahostunen ebakera sorburu-irazki eskema teorikoaren arabera analizatuta, ahoskordetatik gorako barrunbeek irazkiaren egitekoa betetzen dutela.

¹⁷ Adibidez, Zaldibiako bokalen azterketan Pilartxo Etxeberriak (1990, 265) ateratako batez besteko neurri akustikoetan aipatu hiru bokalen bi lehen formanteen balioak hurrenez-hurren ondokoak dira: [i] 335 Hz-2238 Hz, [a] 661 Hz-1319 Hz, [o] 442 Hz-975 Hz.

¹⁸ Latinaren ondorengo erromantzeetako maileguetan ere gertaten da protesi hori, nahiz batzuetan ez dagoen garbi erromantzeak berak (ere) ez ote zuen bokala gehitu (Michelena [19772]1985, 156).

deko hiztun askori gertatzen zaion bezala) eta esaten zuten *plaza* [plasa], *arrazo* [araso], *zapata* [sapata], inguruko gaztelaniaz *plaza* [plaθa], *razón* [raθon], *zapato* [θapato] baziren ere.

Orain ere guk (Hegoaldeko euskaradunok) bokal eta guzti entzuten ditugu ingelesezko [s] gehi kontsonante hasten diren hitzak: *stop* (/estop/), *Skype* (/eskaip/), *striptease* (/estriptis/) edo lehen aipatutako *Sting* (/estin(g)/). Iparraldeko gehienak badira gauza honezkero, txikitatik ikasi duten frantsesari eskerrak, *spleen* bezalakoak bere horretan hautemateko (/sp-/), gogoratzeko eta, berariaz, ahoskatzeko¹⁹.

Norberak ahoskatzen dituenak ere gogoan duenarekin berdindu ohi ditu. Esaterako, iruditzen zaigu berdin-berdinak direla kontsonante biak *baba*, *gogo*, *duda* hitzetan. Baina ez dira, ia inoiz ez dira berdin. Hitztunaren gogoan hasierakoa bezalako den bigarren kontsonantea aldatu egingo da hitzunen gorputzetik atera orduko, baina entzulea ez da ohartuko, batera hitzun eta entzule den hitzun-entzule edo entzule-hitzun hori ez da konturatuko, ziurrenik berak ere beste horrenbeste egiten duelako kontsonante horiek bokal artean ahoskatzen dituenean, bokalen lasterrak kontsonantearen indarra airean eramaten dionean²⁰.

Nahigabe, oharkabean egiten dugun hori ohitura bihurtzen zaigu eta, bizitzaren beste alor zenbaitetan bezala, ohitura hausten denean, ohikoen gertatzen ez denean, nabaritzen da argien. Horregatik, Ruper Ordo-

¹⁹ Orain arteko kasu guztiek erakusten dute nola hitzunik entzuten duena bere lehen hizkuntzan berariaz erabiltzen dituen oinarrizko hots (fonema) eta hots-bilkura posibleetara egokitzeko joera duen, beste hizkuntza batetik datorlanean ere. Beherago aipatuko da zer gertatzen den erabiltzen diren bereizkuntzak beste hitzunik egiten ez dituenean. Testu nagusiko paragrafo honetan hotsak //barren artean eman dira, fonemen bidez gauzatzen den oharmenaz ari garelako. [] kako zuzenen artean adierazten denak forma ahoskatua jasotzen du funtsean. Egia da maiz oharmenaren eta ahoskeraren transkripzioak bat letozkeela hemen erabiltzen den transkripzio-maila aski laxoan.

²⁰ Teknikoki adierazita, lehen kontsonantea herskaria da ([b, d, g]) eta bokal artekoa, berriz, jarraitua ([β, ð, ɣ]). Ohikoa bada ere «igurzari» deitza azken horiei, ez dirudi egoki izen horrek, ikerlari zenbaitek gaztelararen inguruan adierazi bezala, ez baita benetako igurtzirik sortzen euskaraz ere (Joaquín Romeroren taldeko edo bakarkako lanak bereziki gomendagarri dira). Hitz hasierako eta bokal arteko /b, d, g/ kontsonanteen arteko desberdintasun horrek emankortasuna galdu du Iparraldeko frantses-euskara hitzun elebidunengan.

rikak, bere kantatzeko eraren ozentasun eta leuntze bereziengatik konsonante moten lekuak aldatzen dituenean, entzuleari iruditzen zaio zerbait gertatu dela²¹.

Hotsez, hizketarako erabiltzen ditugun hotsez ohartzen baikara, zeharka bezala, ez hitzez bezala, ez gramatikaz bezala... Hotsak urrutiago daude gure jakinaren gaineko ezagutzatik. Beharbada horregatik gramatikagileek, idazleek, irakasleek, araugileek ere kasu gutxiago egin izan diote ahoskerari... hizkuntzaren kanpoko aldea balitz bezala, fruitua janda bota egiten den eskola. Baina azalik gabeko fruitua usteldu egiten da, kanporatzen ez den hizkuntza bezala.

Halaz ere, nahiz horren garrantzitsu izan, egia da ahoskera gauza berezia dela hizkuntz osagaien artean, ezin dela hiztegia bezala edo gramatika bezala arautu, ezta ikasi ere. Ahoskera ez da memoria, ez da pentsamendu hutsa, gramatika edo gauzen izenak bezala. Ahoskera hitzak eta gramatika gorputz bihurtzea da eta, gorputza baliatuta, aire mugimendu eta aire mugimendu hori, tinpano astindu (berriz gorputz) entzulearengan.

Kanpokotasun hori islatzen da alemanez ahoskera *Aussprache* deitzean. Euskaraz *mingatu* nahi zuen Broussain-ek, hitzaren eraketa alde batera utzita hemen, mihiarekin, zuzenean hitzunaren anatomiarekin lotzen den deitura²². Broussainenak baino arrakasta gehixeago izan duten *ebaki*, *trenkatu* bezalakoek iradokitzen duten analisiak ere merezi luke orain luzeegi gertatuko litzatekeen eztabaida. Larramendiren *oguzi* ere erabili izan da, baten batek nahi baino gehiago. *Ahoskatu* esaten dugu guk, pentsamenduari, esan nahiari, gogoari ahotsa ematea, hizkuntza ahotsaz ateratzea, ahotsaren bidez kanporatzea, besterenganatzea.

Uhinetan mugitzen den hotsa da ahotsa; areago, uhinen uhina da esaldi bakoitza, gertatzen den unean, eta uhina da hizkuntzaren historia etenga-

²¹ Silaba ekineko (*onset*) txistukarien ahostuntzea edo hitz hasierako herskari ahostunen jarraitutzea dira Ruper Ordorikaren kantuan azaltzen diren bilakabide fonologiko berezi eta nabarmenetakoak.

²² Hitzaren formaren oinarritzat *mim+ka+tu* morfema katea aldarrikatzen du Broussainek (Charriton 1986: 338).

beko *drift* horretan, denboran eta espazioan zehar, hizketa aldatzen denean leku batetik bestera, bailara batetik bestera, belaunaldi batetik bestera, hiztun batetik bestera, hiztunaren aho-sudurretatik entzulearen belarrira eta belarritik oharmenera²³.

Daniel Jones ez den hiztun arruntak aldaketa nabarmenenak bakarrik hauteman ohi ditu bere horretan: funtsean norberak egiten duen bereizkuntza besteak egiten ez duenean ohartzen gara desberdintasunaz. Esate baterako, «s» eta «z» bereizten dituen ekialdeko hiztun batek nahastea hautemango du bizkaitar edo gipuzkoar kostaldeko askorengan, edo *ollua* eta *oyua* bereizten dituztenek jakingo dute bestek nahasten dituela. Bereizkuntza egiten duenak desberdintasun horiek memorian ditu eta egiten ez duenak, ez²⁴.

Hizkuntza airea eta memoria dela esan dut lehen eta ahoskera ez dela memoria, baina behar du, gertatzeko, memoria. Hitzen memoria bezala, gramatika arauena bezala, gure hizkuntzaren –edo hizkuntzen– hotsen memoria dugu.

Entzuten duguna gordetzen dugu memorian txikitatik, umetan entzuten ditugun lehen hitzetatik, lehen esaldietatik. Entzuten duguna gogoratzen dugu, baina gogoan gorde duguna bakarrik entzuten dugu linguistikoki, hori bakarrik kudea dezakegu berariaz, nahita, hori bakarrik da gure hots-baliabide hitz egiteko, hiztun egitekoa betetzeko²⁵. Bakoitzari bere hizkuntzak –bere hizkuntzek– memorizarazi diona bakarrik gogoratzen dugu, hautematen dugu, entzun-uste dugu. Hizkuntzaz jabetu den helduak txikitari gogoratu, gogoan gorde zuen hori, entzungo du, egin ahal izango du nahita, bai

²³ Hiztuna bera izan daitekeen entzule horren oharmenera.

²⁴ Ez dituenak nekez programatuko ditu hotsa ekoizteko mugimendu anatomikoak buruan ez duen moldaketa baten arabera. Honek helduen irakaskuntzan ahoskerak behar litzukeen irakasbi-deen berezitasuna azpimarratzen du.

²⁵ Erabateko desberdintasuna dago hemen hizkuntzaz jabetzen ari den hauraren eta hizkuntza bereganatu duen helduaren artean. Testu nagusian esandakoa bigarren horri dagokio. Umearen hautemateko gaitasun zabalak noiz eta nola bihurtzen den hizkuntza ikasiak hesitutako helduon oharren fonemiko hertsia eztabaidagai zail bezain oparoa da ikerlarien artean (fonologia teorikoaren ikuspuntutik egindako hausnarketa interesgarri baterako, ikus Donegan 1995).

txikitan ikasi zuen hizkuntza edo ikasi zituen hizkuntzak erabiltzean, bai beranduago bereganatu nahi lituzkeenak ikasteen: berak *gogoan* duena.

XIX. mendearen azkenean Jan Baudouin de Courtenay hizkuntzalari poloniarrek Errusian alemanez esan zuen fonema dela hiztunaren hots-ideia (*Lautidee*), hots-irudikatzea (*Lautvorstellung*), bere hots-asmoa (*Lautabsicht*)²⁶. Euskaraz *hots-gogo* terminoak hiruko alemanaren alderdi funtsezkoenak bilduko lituzkeela uste dut, baina, hortik aurrera, hiztegi-gileek esan beharko dute.

Drift (norabidea: aldian-aldiko aldagarritasuna eta denboran zeharrekoa)

Aipatutako kontu horietan datza ahoskeraren misterioaren atal bat: besteren ahotik entzun uste duguna gordetzen dugu buruan. Bestalde, buruan, gogoan dugun hori da guk egin nahi izaten duguna, gure asmoa, gure gogoia. Haatik, gure gogotik aire uhinetara gauzak aski alda daitezke eta areago, gero, entzulearen burura. Aldaketa horretan ez dira beti arazo soilik fonetikoak tarteko.

Zuen baimenarekin, nire ustez hori salatzen duen anekdota bat kontatuko dizuet. Izan ere, asko dira gisa honetako gertakariak, baina kontatuko dudan honek nire adinekoak ingelesarekin zaletu gintuzten garai eta giroetara garamatza eta horregatik gertatu zait bereziki apropos gaurko hitzaldi honetarako.

Ez da asko *El País* egunkarian Joseba Elolak kontatu zuela eta beharbada irakurriko zenuten zuetako batzuek ere edo lehendik jakingo zenuten²⁷. Kontua da Bob Dylan-ek, 1964ko abuztuan lehen aldiz The Beatles taldearekin bildu zenean, haien begikotasuna erakarri nahian edo, esan omen ziela asko

²⁶ Agian ez da erabat zuzena Errusian esan zuela idaztea. Kontuan izan behar da Baudouin de Courtenayk bere 1895eko *Versuch einer Theorie Phonetischer Alternationen. Ein Capitel aus der Psychophonetik* liburuan azaldu zituela termino horiek eta 1893az geroztik bost urte igaro zituela Polonian kontratatuta berriro Errusira itzularazi zuten arte (ikus Stankiewicz 1972: 10).

²⁷ Philip Norman-ek idatzitako John Lennon-en biografiatik jaso omen zuen Elolak (2009).



gustatu zitziola beren kanta bat, *I want to hold your hand* ('eskutik heldu nahi dizut'), batez ere errepikatzen zen lelo hura, *I get high* zioena, 'zopatzen naiz, zopatzen naiz' alegia²⁸. Haatik, erantzun omen zioten, ez zen hori Beatles-ek kantatzen zutena, baizik askoz gauza txintxoagoa, *I can't hide*, alegia 'ezin dut izkutatu'. Kazetariak ahoskera britaniarraren eta Dylan-en oharmen amerikarraren artean kokatzen zuen arazoa. Lagunduko zuen, nola ez, kantuaren doinuak, esaldi biek hartzen duten antza handiagoak ere. Ziurrenik hori da neurri batean, baina esango nuke alderdi semantikoek ere sartu zutela esku gaizkiulertuan, Dylan entzuleak gogoan zuenak, ulertu nahi izan zuenak.

Horrelako uste okerrak hizkuntza beraren barruan jazotzen badira, zeresanik ez, bat baino gehiago dituenentzuleak bere esku, belarrira iristen zaizkion uhinak buruan hizkuntza bihurtzeko, esanahiz jantzeko. Duela ia hogeita hamar urte egindako grabazio batean Astigarragan, gure gizartean

²⁸ Ulermena errazte aldera, gehitu behar dut gehien bat «kolokatzen, jartzen naiz» edo «flipatzen dut» bezalakoak entzun ohi direla, edo niri behintzat ezagunago gertatzen zaizkidala hiztegiko *zopatu* ikasia baino.

oso arruntak diren *code-mixing* edo kode-nahastearen²⁹ gertaldi batean, jaso genuen. Euskaraz zihoan hitz-aspertuaren une batean hiztun donostiarrak «de eso nada» esan zuen gartzelaniaz, eta Astigarragakoak, kode aldaketaz ohartu ere egin gabe, lasai asko, besteak esandakoa errepikatu ustez, esan zuen «esan dana», beste hiztunak erabilitako ia doinu berebean.

Emandako bi adibide hauek ez dira anekdota xumeak baizik, ez direnak ahoskera-oharmen desegokitzeen bidez garden eta erraz analizatzen. Balio dute ordea ikusteko gauzak nola gertatzen diren. Dylan bere aldaketaz ohartarazi egin zuten besteek. Gure Astigarragako laguna ez zen ohartu eta segi egin zuen³⁰. Askoz gehiago eta mota askotakoak izango dira oharkabean gauzatzen diren aldaketak edo aldaketetarako abiapuntuak, iturburuak. Horietako batzuek, zerbaitegatik, bat egingo dute hizkuntzaren barne mugimenduaren norabidearekin, *drift*-arekin, eta agian noizbait sendotu egingo dira. Orduan hizkuntzaren ezaugarri berri bihurtuko dira.

Drift (ahoskeraz gainerakoak eta, berriz, hotsa)

Hizkuntzaren etengabeko aldaketa hori, mugimendua, ur lasterrarena bezalakoa, airearena bezalakoa, hizkuntzaren ezinegon hori berori da, bestalde, hizkuntzaren irmotasunik handiena. Hiloztearen arriskutik beti ihesi ibili ahal izateko barne-indarra ematen dio aldakortasun horrek, komunikazio behar eta baldintzetara egokitzeko balioa, azken batean, beraz, erabilgarritasuna.

Haatik, bere aldetik, hizkuntza bizitzeko ezinbesteko indarra den aldakortasun hori erabileraz elikatzen da, hizkuntza behin eta berriz hizketa eginaz: hitzak hots egiteak bazkatzen du, pentsatutakoa aire bihurtzeak.

²⁹ Berezi behar lirateke *code-mixing* vs. *code-switching* (alegia, kode-nahaste vs. kode-aldatze). Hemen lehenengoaz ari naiz). Bereizkuntza terminologiko hori egiten dutenen arabera, hainbatik hainbatean, *mixing* edo nahastea arrunta da bi hizkuntzetan trebe diren hiztunengan, *switching* edo aldatzea, berriz, hizkuntza batean behintzat pobreago direnen baliabide izan ohi da.

³⁰ Hain zuzen ere, «esan dana» hitzak bere hurrengo hizketa-jardunaren abiapuntu gisa erabili zituen, zitekeen eten-saioari jaramonik egin gabe.

Eta... hor, berriz, hor ere berriz... beste aldaketa askoren (agian gehien) funtsean apika³¹, hotsen aldatu beharra. Ez gara gauza ahoaren mugimenduak, beste edozein mugimendu errepikatzeko, erabat eta guztiz errepikatzeko, ezintasun hori hotsa hautematearen leialtasun ez-osoarekin korapilatua datorkigu gainera. Gizakiaren sortzezko gaitasuna, errepikape-narena, erabatekoa ezin izatearen murriztapen horrek mugatua, gizaki oro noizbait sortzaile, nahigabe bada ere berritzaile bihur dezake.

Ahalmenaren eta ezinaren arteko paradoxa hizkuntzaren aldaketa guztien azpian datza, bai ahoskeraren esparruan eta bai gainerakoetan ere, eta, Sapir dixit, hizkuntzalarion ezjakintasunagatik itxura mistikoa hartzen du³²:

(...) are we not imputing to this history a certain mystical quality? Are we not giving language a power to change of its own accord over and above the involuntary tendency of individuals to vary the norm? And if this drift of language is not merely the familiar set of individual variations seen in vertical perspective, that is historically, instead of horizontally, that is in daily experience, what is it? Language exists only in so far as it is actually used –spoken and heard, written and read. What significant changes take place in it must exist, to begin with, as individual variations.

(Sapir 1921: 154-155)

³¹ Ikus ideia horren aldeko tipologia holistikoaren proposamenak (Donegan/Stampe 1983, 2004; Donegan 1993), neurri batean, nahiz ez hemen islatzen den ikuspuntu kausalenetik, Joseba Lakarra euskararen berreraiketan erabiliak (ikus Lakarra 2009). Ez dago urruti Sapirren (1921: 174) oihartzuna: «A drift that begins as a slight phonetic readjustment or unsettlement may in the course of millennia bring about the most profound structural changes. The mere fact, for instance, that there is a growing tendency to throw the stress automatically on the first syllable of a word may eventually change the fundamental type of the language, reducing its final syllable to zero and driving it to the use of more and more analytical or symbolic (...) methods».

³² Ondoko aipua agian estetikoki luzeegi gerta badaiteke ere, uste dut merezi duela hona ekartzea Sapirrek dioena dioden bezalaxe. Izan ere, dei egingo nioke irakurleari aurreko eta ondoko lerroak ere irakur ditzan (Sapir 1921: 174-175, euskarazkoan). Kontuz ibili behar du euskarazko itzulpena irakurtzen duenak. Nahitaez zuzendu behar da 174. orrialdean azkenetik gora hirugarren lerroan «Horiek beroriek **ez dira** zorizko fenomenoak (...)». Jatorrizkoak dio (op. cit. 154): «They themselves **are** random phenomena, like the waves of the sea (...)». Letra lodiak desberdintasuna nabarmentzeko erabili ditut.

Hizkuntza hizketa egitean bere kasa aldatzen da, hiztunoi baimenik eskatu gabe³³, baina guk, hiztunok aldatzen dugu, gauzei izenak jartzeko beharragatik, gure memoriaren mugengatik, entzuten duguna ulertu egiten dugula sinesteagatik, mundua puskaka, esaldika antolatzearen zailtasunak behin eta berriz gainditu, konpondu nahi izate horregatik, eta, ahoskerari dagokionez, gure entzumen mugengatik, gure gihar alferren lana arintzeko grinagatik. Horrek guztiorrek berrikuntzak dakartza etengabe. Berrikuntzak jazotzen dira hizkuntzaren maila bakoitzaren barreneko gatazkan eta mailen arteko etengabeko norgehiagokan³⁴, hizkera eta garaien arabera, noiz eragile bat, noiz beste bat lehenesten delarik.

Guztia, gainera, gizakiok hotsak ateratzeko eta barneratzeko, ibiltzeko, dantzatzeko eta kantatzeko bezala ezinbesteko dugun antolaketa erritmikoaren tiraniak, giza mugimendu orok duen betebeharrak horrek menperatuta, betebeharrak aurre egiteko hizketak ematen dizkigun azentu, doinu, lastertasun, silabakatze eta abarrek liluratuta, zorabiatuta, eramanda³⁵. Richard Wagner-ek ez zuen arrazoirik esan bazuen musika hasten dela hitzen boterea amaitzen denean³⁶. Bada hitzik gabeko musika, baina erabat ezinezkoa da musikarik gabeko hizketa³⁷.

³³ Garrantzizko gogoeta da gure lanetarako aintzat hartzea beti hizkuntz gaietan adituei ere ez digula baimenik eskatzen, ez behintzat beste inori baino lehenago.

³⁴ Esaterako, fonologian ahoskera errazten duten aldaketen artean eta entzumena bermatzen dutenen artean; fonologiaren eta morfologiaren artean, hots azentugabeak ahultzeko joerak marka gramatikalak adieraztearen kontra jokatzeko duenean; morfologia eta sintaxiaren artean, komuntadura marken sistema aberatsak kalte egin diezaiokelako perpaus-unitatearen epe laburragoko prozesatze kognitiboari.

³⁵ Modu teknikoago batean adierazirik, esan nahi da hitzak osatzen dituzten kontsonante-bokal kateak doinu eta erritmo egituran sartzen direla, denboran zehar gauzatzen direla fisikoki hots direnean hitzak, horrek hotsen arteko eraginak moldatzen dituelarik gertutasun eta lastertasun eragileak medio, besteak beste. Luze eta lekuz kanpo balitzateke ere areago garatzea, ez nuke aipatu gabe utzi nahi hitzen barne izaeran bertan ere bokal eta kontsonantez gainera egon daitezkeela osagai prosodikoko (funtsean, azentua, gramatikak edo hiztegiak baldintzatuta denean).

³⁶ Esaldia Wagnerrena ote den ez da gauza segurua, nahiz askok berari egozten dioten. Eskerrik asko Carmen Rodríguez-Suso lankide ohiari esaldiaren inguruko argibideengatik.

³⁷ Ikustea besterik ez dago mezu elektronikoetan ahozko gertu dauden esamoldeak doinurik gabe erabiltzeko usu sortzen dituen ondorioak.

Beste aingeru bat

Eta Akademian horrekin guztiarekin aritu behar dugu, batzuen ustez hori kudeatu behar dugu, nahiz pentsa litekeen Hiponako Agustinek aurkitu omen zuen aingerua bezala ari garela itsasoa zulo txiki batean sartu nahian. Ez baita nolanhikoa hizkuntza bideratu nahi izatea. Zeregin horren zailtasuna, gainera, ez datza soilik gaiaren neurrian.

Hurch lankide eta adiskideak, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarterako³⁸ sarrera hitzaldian ekarri zizkigun Georg Bossong-en hitzak ongi datoz orain, esku artean duguna, hizkuntzaren ezaugarritze hau, osatzeko:

El error principal en que caen los simplificadores consiste, según Schuchardt, en que consideran la lengua como un objeto uniforme y bien delimitado, o sea, como una cosa. Hay que tener siempre en cuenta que cada lengua es un objeto multidimensional e infinitamente variable en sí mismo, o mejor dicho, que no es un objeto del todo sino una actividad colectiva.

(Bossong 1984: 176, apud Hurch 2009: 21)

Ondoren gogorarazi zigun Hurch-ek Humboldt-ek egiten zuen bereizkuntza *ergonen* eta *energeiaren* artean, «y, más exactamente, la paralela concepción de *energeia* y *actividad humana*» (Hurch 2009: 22). Luze joko luke eta ez da orain horretarako unea. Ezta ere, haatik, gauzen konplexutasuna ahaztekoa.

Hizkuntzaren barruan, ahoskeraren gaia ez da inondik ere errazena, errazik bada; nik ere hartuko nuke aztergai sinpleagoa bagenu. David Stampe fonologialariak dio (Stampe 1979: 17), hizkuntzaren jainkoa balitz, edozein sistema asmatzea bere esku balu izaki hilkorrok hots zailak gure hizketa ahalbide mugatuetara egokitzeko, errefusatu egingo lukeela ziurrenik duguna bezalako sistema, zailtasun bakoitzari erantzun atomistiko berezia ematen diona. Horren ordeztu sistema bateratu globala antolatzen saiatuko litzatekeela. Haatik naturak ez omen ditu gauzak hala moldatu. Haurren eta

³⁸ Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País/Euskal Herriaren Adiskideen Elkartera Erreferentzien zerrendan adieraziko den bezala, sarrera ekitaldia Donostian izan zen, 2005eko maiatzaren 27an.

helduen hizkuntzek salatzen dute ahoskerak ordezkatzeko pila baten emaitza direla, eta ordezkatzeko horiek, banan-banan natural badirudite ere, denak batera elkarren kontrako ondorio makurrak dituztela³⁹.

Baina halakoa da, ez dugu besterik eta zaindu egin behar dugu, inoiz ahaztu gabe hizkuntzak ez duela bere barrena baino zaintzaile hoberik, bere barrena, bere funtsa, *drift*.

Drift hori bazkatzeko, bestalde, ez dago erabilera bera baino elikadura aproposagorik.

Hizkuntzaren barrena ondo elikatuta badago, behar bezala ikasi eta aski erabiltzen den hizkuntzaren ahoskerak ez du ezer galtzen beste hizkuntza batekin edo gehiagorekin bizitzeagatik. Hiztunak baliabideak irabazten ditu.

Garaje esaten ikasi duelako, azken kontsonantea ahoskatzean, [x] hotsa bereganatu duenak ez du ezer galdu, zerbait berria ikasi du, ez bazuen lehendik bere euskaraz *jakin* [xakin] edo *jan* [xan] esaten. Beste kontu bat da, hiztun horrek, Euskaltzaindiaren arau eta gomendioei jarraiki gogoratu behar lukeela egoera formal, profesional, dotore, forma bereziki zaintzen den horietan (gaurkoa bezalako hauetan) *yakin*, *yarraitu*⁴⁰ esatea egokiago suertat daitekeela⁴¹. Arreta horrekin, hizkuntzak, euskarak irabazten du, malgutasuna irabazten du, batasuna irabaz lezake.

³⁹ Jatorrizko aipua hitzez hitz: «If one were the god of language, free to create any sort of system for mortals to adapt difficult sounds to their limited speech capacities, one would surely reject a system involving such atomistic responses to specific difficulties as these individual processes represent, and instead attempt to devise a unified, global system. However, nature has not managed to furnish such a system. The pronunciations of children and of adult languages reveal themselves to be the result of numbers of substitutions which, however natural they may seem individually, have collective results which are perversely cross-purposeful».

⁴⁰ *Yakin* eta *yarraitu* transkripzio fonetikoaren beharrik gabe hotsa zein den ulertzea errazteko idatzi dira horrela. Nazioarteko Alfabeto Fonetikoaren arabera [j] litzateke erabili beharreko ikurra ([j] aldaera ere izan dezakeena euskaraz, 1. oinoharrean esan bezala). Paragrafo horretan bertan gorago erabilitako [x] ikurra hots belarrari dagokio, adibide garbi bat jartzearen, gaztelaniazko *jamón* hitzean edo euskaraz ere erabiltzen dugun *jope* esapidetan lehen hots dena.

⁴¹ Euskaltzaindiaren 87. arauaren izenak berak, *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua*, adierazten du ahoskera erabilera maila jakin batzuetarako bakarrik arautzen dela (ikus Euskaltzaindia 1998, 485-490).

Berdin gertatzen zaio *garbure* mailegua frantsesetik bereganatu eta *ü*⁴² hotsaz aberastu duenari bere ahoskera-baliabideen zorroa; hori, ez bazuen lehendik ere esaten *egün*, edo *üzten*, (*h*)*artü*, *entzüten*. Seigarren bokal hori duenak hobeto ahoskatu ahal izango ditu alemanezko *Tübingen* edo frantsesezko *tu*.

Ez da beraz (eta berez) kezkarri Iparraldeko hitzuneke egungo maileguetan hots hori erabiltzea. Arazoa litzateke, euskal hitz jatorrak ere horretara makurtuko balituzte.

Hartara, erabiltzeaz gainera behar bezala ikasi behar da. Lehen egiteko horretan guztiok garen hiztuna da lehen bultzagile, protagonista. Behar bezala ikaste horretan, ordea, badu Euskaltzaindiak zer esan, izan lezake bederen. Euskara behar adina erabili nahi bada, erabilera maila guztietara egokitzeak berebiziko garrantzia du, ez horrenbeste euskarari beste hizkuntza batzuekin bizitzea egokitu zaiolako, beste hizkuntza askoz hedatu eta garatuagoekin, aspaldi estandartutako hizkuntzekin bizi delako baizik: gaztelaniarekin, frantsesarekin eta orain, pixkanaka handiagotuz doan neurrian, ingelesarekin. Hor behar du gure zaintza eta guztion arreta. Hizkuntza indartsu normalduak baino ahalegin, arreta eta kontu handiagoa behar du euskarak.

Guk behintzat, hiztunon konfiantza jaso izanaren zori ona izan dugunok, neurri horretan berorretan zor diegu erantzuna. Ni, euskaltzainek horretarako deitua izanaren ohoreari ahal bezain ondo erantzuten saiatuko naiz: euskararen aireak haize eta urak olatu bihur ditzaketen zurrumbilo guneak bilatuz, aztertuz ur lasterren bideak, *drift* horren nondik norakoak, fonema eta doinuen esparruan.

Ez da erraza gure lana, euskaltzainona alegia. Oso ulertzekoa ere ez da hizkuntzaren askatasuna maite duen hizkuntzalariarentzat, uhinak zaindu baino olatuak harrapatzea, txanpa egitea, atseginago duen batentzat. Hor gaude halere. Hemen nago halere. Ahal bezainbat egingo dut eskatzen zaidana. Zaila da, badakigu. Jakin beharko genuke behintzat. Ez da inorentzat erraz, ez zaintzaileentzat, ez erabiltzaileentzat. Baina, guztion lasaitasune-

⁴² Nazioarteko Alfabeto Fonetikoan [y]. Ez da nahasi behar [j] edo [j] hotsak ortografikoki adierazteko erabili berri dudana «y» letrarekin.

rako gogoan izan behar dugu hizkuntza indartsua dela, hizkuntzarik txikiena ere aski indartsua dela. Anima du. Berezkoa. *Drift*. Hiztunak behar du bidea, euskararen egoeran (ataka honetan) dagoen hizkuntzaren hiztunak. Hizkuntzak ez. Hizkuntzak hiztunak behar ditu eta, hiztunek, argi pixka bat eta patxada handia, urak bere bidea egin dezan.

Erreferentziak

- CALVINO, ITALO. 1979. *Se una notte d'inverno un viaggiatore*. Torino: Einaudi.
- CHARRITTON, PIARRES (arg.). 1986. *Iker-4. Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- DONEGAN, PATRICIA J. 1978. *On the Natural Phonology of Vowels*. The Ohio State University. (1985, Garland, New York).
- 1993. Rhythm and Vocalic Drift in Munda and Mon-Khmer. *Linguistics of the Tibeto-Burman Area* 16.1-43.
- 1995. The innateness of phonemic perception. *Proceedings of the 24th Western Conference on Linguistics*. Vida Samiian / Jeanette Schaeffer, eds. Fresno, CA: Dept. of Linguistics, California State University, 59-69.
- DONEGAN, PATRICIA J. and DAVID STAMPE. 1983. Rhythm and the Holistic Organization of Language Structure. In John Richardson et al. (eds.), *Papers from the Parasession on the Interplay of Phonology, Morphology, and Syntax*. CLS. Univ. of Chicago. 337-353.
- 2004. Rhythm and the synthetic drift of Munda. *2004 Yearbook of South Asian Languages and Linguistics*. Rajendra Singh, Edit.-in-Chief. Berlin/New York: Walter de Gruyter, 3-36.
- ELOLA, JOSEBA. 2009. Los rincones ocultos de John Lennon. *El País (vida & artes)*, 7.XI.2009, 39.
- ETXEBERRIA, PILARTXO. 1990. *Zaldibiako Bokalen Azterketa Akustikoa*. Universidad de Deusto: Cuadernos Universitarios.
- EUSKALTZAINDIA. 1998. Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua. *Euskera* 43 (1998,2), 485-490.

FISCHER-JÖRGENSEN, ELI. 1975. *Trends in Phonological Theory*. Copenhagen: Akademisk Forlag.

HURCH, BERNHARD. 2009. *Nuevos Extractos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Discursos pronunciados con motivo del ingreso de Bernhard Hurch el 27 de mayo de 2005*. Donostia-San Sebastián: Suplemento 18-G del Boletín de la RSBAP, 15-42.

INTERNATIONAL PHONETIC ASSOCIATION. 1999. *Handbook of the International Phonetic Association*. Cambridge University Press. (Alfabetoaren azken bertsiok: <http://www.langsci.ucl.ac.uk/ipa>).

JONES, DANIEL. 1955². *Phonetic Readings in English (Improved Edition)*. Heidelberg: Carl Winter Universitätsverlag.

LADUSAW, WILLIAM A. / GEOFFREY K. PULLUM. 1986. *Phonetic Symbol Guide*. University of Chicago Press.

LAKARRA, JOSEBA. 2009. Aitzineuskara berreraikiaz: zergatik ezkerre. *Euskera* 54, 17-98.

LENNON, JOHN / PAUL MCCARTNEY. [1963] 1993. I want to hold your hand. *The Beatles*. 1962-1966 EMI Records Ltd.

LODGE, KEN. 2009. *A Critical Introduction to Phonetics*. London/New York: Continuum.

MICHELENA, LUIS. [1977²]1985. *Fonética Histórica Vasca*. San Sebastián: Seminario Julio de Urquijo de la Excma. Diputación de Guipúzcoa.

RIMBAUD, ARTHUR. [1871] 1972. *Voyelles. Rimbaud. Oeuvres Complètes*. A. Adam, arg. Paris: Bibliotheque de la Pleiade

SAPIR, EDWARD. 1921. *Language: An Introduction to the Study of Speech*. New York: Harcourt Brace and World. / *El Lenguaje*, México: Fondo de Cultura Económica, 1954.. *Hizkuntza. Berbetaren Azterketarako Sarrera*. Donostia: Gaiak, 2007 (Alberto Gabikagojeaskoak itzulia).

STAMPE, D. 1979. *A Dissertation on Natural Phonology*. Garland, New York / Indiana University Linguistics Club, Bloomington.

STANKIEWICZ, EDWARD. 1972. Baudouin de Courtenay: his life and work. *A Baudouin de Courtenay Anthology. The Beginnings of Structural Linguistics*. Edward Stankiewicz, arg. Bloomington/London: Indiana University Press, 3-48.

STING. 2009. *Gabriel's Message. If on a Winter's Night...* Deutsche Grammophon.

VENNEMANN, THEO. 1988. *Preference Laws for Syllable Structure and the Explanation of Sound Change*. Berlin/New York/Amsterdam: Mouton de Gruyter.

Ur lasterraren dama

AZKARATE VILLAR, Miren
Euskaltzain osoa

Hobe dut zorrak aitortuaz hastea nire hitzak, begi-bistakoak dira-eta zor horiek. Azken Bertsolari Txapelketa Nagusian, Aitor Mendiluzek, txapela irabazi berria zuen Maialen Lujanbiori kantatutako *bertsoaren dama* haren oihartzuna dakar batetik izenburuak. *Zeren* dama zehaztean, berriz, euskaltzain berriaren hitzaldia entzun ondoren, erraz antzemango diozue zorra zertan dudan.

Uraren edo airearen mugimenduari (edo mugimendu horrek eragin-dakoari) esaten zaio ingelesez *drift*, argitu du Lourdes Oñederrak, eta horrekin azaldu, aldi berean, bere izenburuaren hautua. Edward Sapir-en *drift*, «joera, korrontea, norabidea, xedea (...) nik ere nola itzuli ez jakin arren edo horrexegatik agian, ziurrenik horrexegatik, bere horretan itzulezina delako gure hizkuntzetan».

Uraren edo airearen mugimenduaren artean aukeratu behar eta, *airezko emakumeak* musika jotzen dutenak direnez, eta beren aita badutenez¹, *ur lasterraren dama* behar zuen Donostiako hondartzetan, olatu artean, hazi zen euskaltzainak.

Hizketa airezkoa dela entzun dugu. Eta hizketan, hitzak bereizten ditugu; esango nuke hitzak direla hiztunak intuizioz-edo hizketaren unitatetzat hartzen dituenak. Edward Sapir hizkuntzalariak, Lourdesek aipatu duen *El Lenguaje* liburuan (nik ere erdal itzulpena irakurri nuen) dio hitza dela hiz-

¹ Juaristi, F. (2003): *Airezko emakumeak*. Donostia, Erein.

ketan benetan «existitzen» dela esan dezakegun lehen elementua. Hizketa airezkoa bada, ez da harritzekoa hitzak ere aireak, edo haizeak, eramatea *barrez* Xabier Letek idatzi eta Benito Lertxundik kantatu zuenez (*hitzak dira hitzak / haizeak barrez daramazkienak*). Bob Dylani ere galderen erantzuna haizeak eramaten edo ekartzen zion, *the answer, my friend, is blowing in the wind*. Nemesio Etxanizek *Entzun haizetan* itzuli zuen abesti hura (eta Luis Amilibiari kantatu): *entzun haizetan mendebal aldetik nola datorren erantzuna, haitzik haitzaren oihartzuna*.

Hitzak eta Haizea, airearen mugimendua, *drift*. Baina Lourdes Oñederrak ez zituen hitzak aukeratu ikerketaren munduan murgiltzeko. Bestela esanda, hitzak txanpontzat hartuko bagenitu, hauek bezala, bi alderdi dituztela esango genuke: belarrietara heltzen den hots multzoa, alderdi fonikoa, eta esanahia, hots-multzoak irudikatzen duen objektua, 'zera'. Euskaltzain berriak hitzak baino nahiago izan ditu hitzak osatzen dituzten hotsak. *Drift* kontsonantez betea, bi aurretik, bi atzetik, bokal bakarraren inguruan.

Hil honetan bete dira 45 urte musika-film arrakastatsuenetako bat estreinatu zela, *The Sound of Music*, musikaren soinua, hotsa. Musikak eta hizketak harreman estua dute: hizketa zerbait jarraitua da, musikaren doinua, melodia den bezalaxe. Musika eta hizketa, doinuak eta hitzak aireak elkarrekin dituzte, eta, batzuetan, ikerketa-proiektuek ere bai (hiru urte eman ditu Lourdesek *Palabras en música: un ejercicio de lingüística contrastiva* izeneko ikerketa-proiektua lantzen). Bai hizketak eta bai musikak badute lehengaiak: hotsak eta notak. Filmean bada abesti bat kantuan nola ikasten den azaltzen duena: irakurtzeko A-B-C dira hasiera / kantatzeko, do-re-mi. Notak buruan hartzean, horiek nahasiaz, hamaika doinu kanta daitezke. Notak dira kanturako lanabesak.

Notak eta letrak parekatzen ditu abestiak. Letrak irakurtzeko eta idazteko behar ditugu. Baina hizketa letren eta irakurketaren aurrekoa da; lehen, jatorria, hizketa da. Idaztea hizketaren adierazpena baino ez da; hizketa denboran finkatzeko, hizketari iraunarazteko modua. Eta hizketaren lehengaiak letrak ez, baina hotsak dira; edo, zehazkiago esanda, hitz egiten dugun aldi bakoitza, hizketaldia, hizkuntza jakin baten adierazpidea bada, hotsak dira hizketari dagozkionak eta *fonemak*, horien atzean dauden elementu

abstraktuak, hizkuntzarenak. Fonemak dira *hitz* eta *hotz*, *hotz* eta *hots*, *hots* eta *huts* bereizteko bide ematen digutenak. *Hitz hotzak*, *hotz hotsak*, *hots hutsak*. Haizeak, aireak ekartzen dizkigunak.

Hasi eta *hazi*, bi fonema txistukarik bereizten dituen gertaerak. Hotsen eta fonemen munduan hasi zen Lourdes Oñederra, Fonetikan eta Fonologian. Bustiduraz, palatalizazioaz egin zuen doktore-tesia Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean. «Urak bezala palataltasunak busti egiten du nonbait» entzun diogu euskaltzain berriari. Ordurako fonetika eskolak emana zen Iowako Unibertsitatean, irakasle laguntzaile lanetan.

Hasi eta *hazi*, Fonetikaren eta Fonologiaren alorretan aurrera egin, Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean lehenik, eta Euskal Herriko Unibertsitatean ondoren. Euskal Fonetika eta Fonologia izan dira Lourdes Oñederraren irakasgaiak 1982tik gaur arte Gasteizko Letren Fakultatean. Doktorego-ikastaroetan ere gai horietaz jardun du. Eta hortik kanpo ere hamaika hitzaldi eta ikastaro eman eta ikerlanean ere jardun du beste unibertsitate batzuetan –Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, Guatemalako San Carlos Unibertsitatean, Portoko Unibertsitatean, Madrilen Zientzia Ikerketen Goi Mailako Zentroan («Centro Superior de Investigaciones Científicas» delakoan), Vienako Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Institutuan, Grazeko Unibertsitatean, Hawaiiko Unibertsitatean ...—. Etxean eta kanpoan, aireak ekartzen dizkigun hots horien eta horien atzean ezkututzen diren fonemen atzetik lanean.

Bideari jarraiki, ez da harritzekoa zuzenduriko Doktorego-tesi eta graduondoko proiektuak ere Fonetika eta Fonologia ikertzen zutenak izatea².

² Agurtzane Elordui. «Hizkuntz Heriotza eta Aldaketa Morfologikoa: Hegomendebaldeko Bizkaieraren Kasua» Doktore Tesia (1995.X.9: Apto cum laude).

Ainara Estarrona. «Bokal arteko harremanak hitz azkenean OT eta FNean», 6 kredituko ikerlana, 2004.XI.24an aurkeztua. Zuzendari kide, Gorka Elordieta doktorea.

Oroitz Jauregi Nazabal. «Euskal silaba egitura». Doktore Tesia. *Sobresaliente cum Laude*, 2007. VI.22. Zuzendari kide, Joseba Lakarra Andrinua doktorea. Premio extraordinario.

Saioa Larraza. «Fonologiaren jabekuntza eta elebidunen sistema fonologikoa», «Ahoskeraren ikaskuntza elebidun berantiarrengan: azterketa enpirikoa» ikerlanak, 6 kreditukoak, 2008. XII.01ean aurkeztuak.

Ez da harritzekoa idatzitako liburu eta artikuluetako (20tik gora) gai ohikoena Fonetika eta Fonologia izatea: *Euskal Fonologia: Palatalizazioa* 1990ean; *Fonetika eta Fonologia hitzez hitz*, 2004an. Orobat esku artean dituenetan: *El patrón sonoro de la lengua vasca: propuesta de análisis desde la Fonología Natural*. Edo Joseba Lakarrarekin batera prestatzen ari den *Antología de la obra de David Stampe y Patricia Donegan*. Halaber nazioarteko kongresuetan aurkeztutako komunikazioetan (30etik gora).

Hizketa airezkoa da, uhinek ekartzen digute belarrietara. Baina komunikazio teknologiei esker, makinak ere belarri bihurtu dira; hizketa entzun dezakete, eta entzuten duten hots-segida hori ezagutu ere egiten dute. Baldin eta, jakina, behar duen informazioa ematen bazaio makinari lana txukun egin dezan. Horretan ere jardun du euskaltzain berriak, hizkuntzalari-taldearen buru izan baita Euskal Herriko Unibertsitateak eta Telefonicaren Ikerkuntza eta Garapeneko atalak sinatutako Ikerkuntza Proiektuan, *Diseño y adquisición telefónica de una base de datos para el reconocimiento automático del habla en Euskera*. Aldez aurretik, jakina, corpus fonetiko diseinatu eta prestatu beharra zegoen. *Eurospeech* aldizkarian argitaratu zuten corpus fonetikoaren diseinua eta ikerketa proiektu batean landu *Corpus oral fonético y decodificación acústico-fonética para el desarrollo de sistemas de reconocimiento automático del habla en euskera*.

30 urtetik gorako ibilbidean eginiko merezimenduak handiak izanik ere, bi iker-lerro nabarmendu nahi nituzke, biak ere elkarri estuki lotuak: ahoskera arautzeko ahalegina, eta euskara bigarren hizkuntza dutenek ahoskera egokia lortzeko egindako lana.

Hizkuntza bideratu nahi duenaren lana, Hiponako Agustinek aurkitu omen zuen aingeruarena bezalatsukoa da, itsasoa putzuan sartu nahia. Eta horren barruan, entzun dugu, «ahoskeraren gaia ez da inondik ere errazena». Hizketarako erabiltzen ditugun hotsak urrutiago omen daude gure jakinaren gaineko ezagutzatik; ezin dira hiztegia bezala edo gramatika bezala

Saioa Larraza. «Elebidun berantiarren sistema fonologikoak». Doktore Tesia. (bidean).

Alejandro Wang. «Percepción fonémica del tono en chino mandarín». Trabajo de investigación del Máster en Estudios Fónicos, CSIC. (bidean).

arautu, ezta ikasi ere. Beharbada horregatik araugileek ere kasu gutxiago egin izan diote. Gogoeta horiek egin ditu Lourdes Oñederrak bere hitzaldian.

Araugileek kasu gutxiago egingo zioten (egingo genien) hotsei, baina ez gaur «ofizialki» gure artean hartzen dugun euskaltzainak. Horixe izan da bereziki Euskaltzaindian egin duen lana, bere ekarpena. Ahoskera, ebakera, erregistroak... Une eta egoera desberdinetan zein ebakera-modu den onargarri bereizi, ahoskera zainduak nolakoa behar duen ikertu³, nazioarteko kongresuetan horretaz gogoeta egin⁴, Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ) prestatu⁵ Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordean eta gai horren gainean antolatutako Jardunaldietan. Eta, nola ez, Ahoskera Zainduak nolakoa behar duen irakatsi⁶ (EHUko Euskara Institutuak antolaturiko ikastaroetan, doktorego-ikastaroetan...). Eta ildo honetan, ez da gutxienekoa EITBrentzat egindako lana. Lau urte izan zen Lourdes

³ Ahoskera araupetzeaz, *Euskera* 39 (2. aldia), 1994,1523-1526 eta *Euskera* 39 (2. aldia), 1994, 1589-1605.

Ahoskera eta arauak. Arauak eta ahoskera, *BAT Soziolinguistika eta Glotopolitika Aldizkaria* 27, 1998, 13-20.

Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak, *Euskera* XLIII, 1998, 2, 439-449.

⁴ «Speech styles and the pronunciation of Basque in TV» (Agurtzane Elorduirekin), Barcelona, 30.IX.-2.X.1991, *Workshop: Phonetics and phonology of Speaking Styles: Reduction and Elaboration in Speech Communication*, ESCA.

⁵ «Ebakera eta erregistroak», Durango, Bizkaia. 1986, maiatzaren 30-31: *Euskal Ebakeraz II. Jardunaldiak*.

«Ahoskera baturantz?» [ponentzia], Leioa, 1994.X.07, *Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra (Leioa, 1994.X.3-7)*.

«Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak (II)» [ponentzia], Doneztebe, 1998.IX.25-26, *Euskaltzaindiaren IV. Ahoskera Jardunaldiak*.

⁶ Ahoskera Batuari buruzko mintegiak: I.B.I., Iruñea (1997.X.17); I.R.A.L.E., Bilbo (1997.X.22); Gasteiz (1997.IX.5); Donostia (1997.IX.12).

«EBAZ edo Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua: nola i(ra)ka(t)si». Euskaltzaindiaren egitekoari buruzko ikastaroan. Vitoria-Gasteiz (Iparralde Gizartetxea), 2000.III.1.

«Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua». Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskararen Institutua. Leioa, 2002. 01.21 (ordu eta erdi).

Ahoskeraren irakaskuntza, UPV-EHU, Lingüística Aplicada (Interdepartamental), 1'5 kr. Dokt. ikastaroa.

Oñederra hizkuntza-aholkulari. Urte horietan, eta lehendik ere, ahoskera, ahoskera-moduak, eta, bereziki, ahoskera zaindua izan zituen langai eta kezka⁷.

Hizkuntza airez eta memoriaz egina dago; horixe izan da entzun dugun hitzaldiaren abiapuntua. Aireaz hitz egin dugu, baina memoria ezin dugu baztertu. Har ditzagun berriro memoriaz esandakoak:

«Entzuten duguna gordetzen dugu memorian, txikitatik, umetan entzuten ditugun lehen hitzetatik, lehen esaldietatik. Entzuten duguna gogoratzen dugu, baina gogoan duguna bakarrik entzuten dugu linguistikoki, hori bakarrik kudea dezakegu berariaz, nahita, hori bakarrik da gure hots-baliabide hitz egiteko, hiztun egitekoa betetzeko»

Eta memorian ez duguna moldatu egiten dugu. Baina,aldi berean, adin batetik aurrera hizkuntza bat ikasten saiatzen garenean, memorian ez dugun hots-multzoa (fonema-sistema) eta memorian ez dugun entonazioa, ebakera, geureganatzen saiatzen gara. Ikasi nahi dugun hizkuntza horren ahalik eta antzekoena geure ezpainera ekartzen. Nekez lortuko dugu guztiz geureganatzea, ia inoiz ere ez. Geure hizkuntzan dihardugunean ere, ahoskerak, entonazioak salatzen du nongoak garen; zer esanik ez beste hizkuntza batean saiatzen garenean. Batzuk trebeago, beste batzuk traketsago. Sandiak edo urliak «azentu handia» duela, edo «ia azenturik ez duela» esan ohi dugu, zenbateraino geureganatu dugun beste hizkuntza horretako ahoskeramoldea. Eta onartu beharko dugu oro har zabar samarrak izan garela horrelako kontuetan frantsesa edo ingelesa ikas/irakastean.

Kontu hauen garrantziaz jabeturik, aspalditik arduratu da Lourdes Oñederra kanpoko ur-lasterrak gurera ekartzeaz: maileguak nola geureganatzen ditugun⁸, euskara bigarren hizkuntza gisa irakasteak zer eskatzen duen

⁷ «Ahoskera dela-eta». Euskadi Irratia. Donostia (EITB, Miramón), 1999.III.25. (2 ordu).

«EBAZ edo Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua». EITB Durango (Iurreta), 1999.IV.16. (2 ordu).

⁸ Oñederra, M.L., Hurch, B. (1987): «The adaptation of loanwords in Basque», Berlín, abuztuaren 10-15, XIV *International Congress of Linguists*. Akademie der Wissenschaften der DDR-ek antolaturiko kongresua.

aztertzeaz⁹, euskaraz jabetzea nola gertatzen den ikertuaz¹⁰, beste batzuen ikerlanak zuzenduaz¹¹, ikerketa-proiektuak koordinatuaz¹². Euskaraz zer gertatzen den, eta, eleaniztasunaren aldeko apustua egina duen gizarte honetan, ingelesa hirugarren hizkuntza gisa geureganatzean zer gertatzen den¹³, edo ingelesdunek gaztelania nola bereganatzen duten¹⁴:

«Behar bezala ikasi den eta aski erabiltzen den hizkuntzaren ahoskerak ez du ezer galtzen beste hizkuntza batekin edo gehiagorekin bizitzeagatik, hitzunik baliabideak irabazten ditu.

Beraz, erabiltzeaz gainera, behar bezala ikasi behar da» (*Drift*)

Oñederra, M.L., Etxeberria, P., Hurch, B. (1987): «Loanwords In Basque: phonetics and phonology», Donostia-San Sebastián, abuztuaren 30a – irailaren 4a, II. *Mundu Biltzarra*. Eusko Jaurlaritzak antolatua.

Oñederra M.L. (2009): Early bilingualism as a source of morphonological rules for the adaptation of loanwords: Spanish loanwords in Basque. *Loan Phonology*. Andrea Calabrese / W. Leo Wetzels, eds. John Benjamins, 193-210. (in press).

⁹ Teaching Basque as a second language, *Journal of Basque Studies* IV. Indiana University Press, 1983, 47-54, rpt. *First International Basque Conference in North America*. Proceedings. California State University-Fresno. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1985.

¹⁰ <Euskararen jabekuntza: azterketa linguistikoa>, Eusko Jaurlaritzak diruz babestutako ikerketa proiektuaren koordinazioa (1996-1997).

¹¹ Saioa Larraza «Fonologiaren jabekuntza eta elebidunen sistema fonologikoa», «Ahoskeraren ikaskuntza elebidun berantiarrengan: azterketa enpirikoa» ikerlanak, 2008.XII.01ean aurkeztuak. Saioa Larraza. «Elebidun berantiarren sistema fonologikoak». Doktore Tesia. (bidean).

¹² <Egungo euskal ahoskeraren analisis: gaztelera eta frantsesarekiko elkar-ukituen azterketa> Ikerketa Proiektuaren Koordinazioa. UPV-EHUK diruz lagundua. Iraupena: 1.XI.2000-31.X.2002. Erref.: UPV-HA-8025/20.

Coordinación de la sección española del Proyecto de Cooperación entre España y Austria (Acciones Integradas) <Adquisición de la morfología en la primera infancia>, en colaboración con el Instituto de Lingüística de la Universidad de Viena y la Universidad de Salamanca. Resolución de 17 de enero de 1994, Dirección General de Investigación Científica y Técnica del Ministerio de Educación y Ciencia (BOE del 1 de febrero de 1994).

¹³ La adquisición del inglés como tercera lengua: un estudio longitudinal>. Ministerio de Educación y Cultura, DGESIC (resolución 9.IX.1998). Duración: 1.X.1998 – 1.X.2001. Investigadora principal: María Asunción Cenoz Iragui.

¹⁴ Ikasle anglofonoei espainiera irakasteko metodologiaren gaineko ikerketan laguntzaile, Iowako Unibertsitatean, Graduate College, Department of Spanish and Portuguese, 1980ko abuztuaren 26tik, 1981eko maiatzaren 15 arte.

Baieztapen biribila, egindako lan guztiaren arrazoia eta zergatia.

Hizkuntza, baina, «airea bezala, ura bezala, etengabeko mugimenduan dago, batzuetan nabaritzen ez bada ere. Hizkuntzaren etengabeko aldaketa, mugimendua, ur lasterrena bezalakoa, airearena bezalakoa. Hotsa, ura bezala, uhinetan mugitzen da». Aldaketa horrek merezi du azterketa, jakina¹⁵.

Airea, ur-lasterra, berdin dio nongoa den; geurea den, geureganatu nahi duguna, edo ingurukoena, ingurukoek bereganatu nahi dutena¹⁶. Berdin dio noizkoa den. *Drift* horixe da euskaltzain berria liluratu zuena. Erosoagoak ziren bideak baztertuaz, unibertsitateko eta ikerketako ur-lasterraren bide-tik abiarazi zuena. Horretan iraurarazi diona.

Hizketa hotsez egina da, baina hots horiek letra bihurtzea ohikoa zaigu. Eta letrekin hitzak osatzea, eta hitzekin perpausak, eta perpausekin testuak. Literatura. Sapir-ek kapitulu bat eskaintzen dio *Language* liburuan Hizkuntzaren eta Literaturaren arteko harremanari, hizkuntza baita azken batean literaturaren lehen gaia.

Pentsamenduaren berri emateko sistema hutsak baino zerbait gehiago dira hizkuntzak Sapir-en iritziz. Adierazpen sinboliko guztiei forma jakin bat, alde aurretik definitua dagoen forma emateko baliabidea da hizkuntza, «gure espiritua biltzen duen jantzi ikusezina». Adierazpen sinboliko horri, balio berezikoa denean, *literatura* deitzen omen diogu, nahiz hizkuntzalari amerikarrak berak onartu ez lukeela jakingo zerk merezi duen zehatz-mehatz «literatura» izena. Hala ere uste du guztiok dakigula zer den literatura. Nik ez dakit guztiok dakigun ala ez zer den literatura, baina argi dago ...*eta emakumeari sugeak esan zion*¹⁷, lehen gaia hizkuntza izanik, balio bereziko adierazpen sinbolikoa dela. Hala aitortu diote irakurleek, hala aitortu diote espresuki 1999. urteko Beterriko Liburu aukeratua izateak, 2000. urteko

¹⁵ Estudio de la lengua vasca hablada en territorio francés: diacronía y sincronía del sistema fonológico. Centre National de la Recherche Scientifique, Centre IKER, UMR-5478, Bayona. Ikerlana. Oñederra, M.L. (2009): «Diacronía y motivación fonética». *Romanística sin Complejos. Homenaje a Carmen Pensado*. Fernando Sánchez Miret, ed. Peter Lang, 47-67.

¹⁶ Alejandro Wang. «Percepción fonémica del tono en chino mandarín». Trabajo de investigación del Máster en Estudios Fónicos, CSIC. (bidean).

¹⁷ Oñederra, M.L. (1999): ...*eta emakumeari sugeak esan zion*. Erein.

Euskadi de Plata sariak, urte bereko Kritikaren Sariak, Literatura Sari Nazionaletan finalista izateak edo Euskadi Literatura Sariak.

Balio bereziko adierazpen sinboliko gehiago ere utzi dizkigu Lourdes Oñederrak, ipuinak, «Txano Gorritxo», «Anderson Andrearen Gutizia», «Beranduegi»¹⁸.

Literaturaren lehen gaia hizkuntza izateak, bestalde, badu zerbait, ez dakit ifrentzua, iruntzia ala ahurra; nolana ere 'beste aldea'. Hizkuntza bakoitzak omen du bere moldea, trokela, bere kolorea, bere ehundura (hala diosku Sapir-ek). Horrexegatik, literaturak ere, jatorrizko hizkuntzaren arabera du moldea, kolorea eta ehundura. Beraz, nola isuri beste molde, bateko hizkuntza batera? Nola itzuli? Nola lortu literatura lan jakin bat, beste kolore eta ehundura duen hizkuntza lehen gai izan arren, balio bereziko adierazpen sinboliko izatea, literatura izatea?

Benedetto Croceren iritziz literaturako artelana itzulezina da. Baina guztiok dakigu literatura lanak itzuli egiten direla eta, batzuetan, bikain gainera. Sekretua, gakoa, ziurrenik, Sapir-ek dioen bezala, edukia eta forma bereiztean aurkitu beharko dugu. Eduki bera ematen asmatu, baina lehen gaia beste hizkuntza bateko trokela, moldea, kolorea, ehundura izanik. Honetan ere trebe ibili da euskaltzain berria Patrick Süskind-en *Die Geschichte von Herrn Sommer* itzulitzean, *Sommer Jaunaren Istorioa*¹⁹. Katalanek, taularatzeko egokitu zuten kontakizuna, Lourdes Oñederrak itzuli eta Jose Ramon Soroizek antzestu.

Haizearen eta uraren joan-etorrian bezala, Lourdes Oñederraren beraren nobela eta ipuinak ere beste hizkuntza batzuetako moldeetara isuri dira, gartzelaniara, ingelesera, errusierara, zein italierara²⁰.

¹⁸ Oñederra, M.L. (2000): «Txano Gorritxo (...)», *Pagourte*, 22 or.

(2000): «Anderson Andrearen Gutizia». *Gutiziak*. Miren Agur Meabe, arg. Txalaparta, 167-176. (Baita ere *Mende berrirako ipuinak*, Erein 2005, 135-143).

(2003): «Beranduegi». *Begiz Jotako Ipuinak* Centro Ordóñez-Falcón de Fotografía (COFF), 15-21.

¹⁹ Oñederra, M.L. (2007): *Sommer Jaunaren Istorioa*. Patrick Süskind-en *Die Gesichte von Herrn Sommer-en* itzulpena. Erein.

²⁰ Oñederra, M.L. (2000): *...y la serpiente dijo a la mujer*. Bassarai.

And the serpent said to the woman, Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno (in press).

Hizkuntzak hiztunak behar dituela esan diguzu (hizkuntza bazkatzeko ez baitago «erabilera bera baino elikadura aproposagorik») eta, hiztunek, argi pixka bat eta lasaitasun asko, urak bere bidea egin dezan.

Eskerrik asko, Lourdes, urak bere bidea egin dezan egindako lanarengatik eta oraindik egiteko duzunarengatik. Eskerrik asko, sarrera-hitzaldiari erantzuna emateko eskatuaz gaurko ekitaldian, Kontxako olatuen hotsen artean, zure «ama ponteko» egin nauzulako. Zorionak Lourdes, ur-lasterraren dama, ongi etorri Euskaltzaindira.

(2004): «Mrs Anderson's longing» *An Anthology of Basque Short Stories*, compiled by Mari Jose Olaziregi, Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada, 175-184.

(2005): «El capricho de la señora Anderson» *Pintxos. Nuevos cuentos vascos*, Mari Jose Olaziregi, edit., Madrid, Lengua de Trapo, 129-139 / Traducción al italiano, Editorial Gran Via / Traducción al ruso (2006 pp. 171-184).